


Eralan proiektuak “Hizkuntz lidergoa” aztertu du jardunaldi batean

2010/11/15

Azaroaren 17an, Soziolinguistika Klusterrak eta MUK antolatuta, “Hizkuntz lidergoa” izeneko jardunaldia egin zen Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Eskoriatzan, bertako areto nagusian. Bertan, hitzaldiak, Pecha Kucha estiloko aurkezpenak eta mahainguruak egin ziren, Eralan 2 ikerketa proiektuaren ondorioak plazaratzeko. Jardunaldia **09:00etan hasi zen**, eta **MUtelebistak zuzenean eman zuen**, *streaming* bidez.

Hizkuntz lidergoaz hitz egin zen jardunaldian, zelan uztartu lidergoa aldagai bezala hizkuntza-portaerarekin. Gai hori jorratzeko hainbat erakundetako liderrak hurbildu ziren. Hizkuntza-kudeaketarekin eta hizkuntzaren ikerketarekin loturiko profesionalak izan ziren partehartzaile gehienak, eta bereziki lan-munduko organizazioetan jarri zen arreta.



Egitaraua

09:00 Sarrerako agurrak

09:30 Hitzaldia: Hizkuntz lidergoa, zertaz dihardugu? Nekane Goikoetxea, Mondragon Unibertsitateko (Huhezi) irakaslea eta Eralan proiektuaren zuzendaria.

10:30 Ikerketa-interbentzioen Pecha Kucha aurkezpenak:

- Bermeoko Udala
- Berrizko Udala - Ahize-AEK hizkuntza aholkularitza
- Donostia Gipuzkoa Kutxa

11:00 Atsedena **11:30** Ikerketa-interbentzioen Pecha Kucha aurkezpenak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia
- JEZ Sistemas Ferroviarios - Artez euskara zerbitzua
- Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Partzuergoa - Elhuyar Aholkularitza
- Fagor Ederlan - Emun lana euskalduntzeko kooperatiba

12:00 Mahai-ingurua: Zer diote protagonistek? Moderatzailea: Nekane Goikoetxea Parte-hartzaileak:

- Maria Jesus Aranburu (Gipuzkoako Kultura eta Euskara diputatua)
- Carlos Ruiz (Kutxako Gizarte eta Komunikazio Arloko zuzendaria)
- Mikel Uribeberria (Fagor Ederlaneko lehendakaria)
- Edurne Urrutia (Bermeoko Udaleko kontu-hartzailea).

13:00 Galdera-erantzun irekiak.